



## PRENTSA-OHARRA

Luxenburgo, 2024ko otsailaren 7an

### **EIBk eta Kutxabankek 600 milioi euro bideratuko dituzte Espainiako energia-eraginkortasuneko proiektuak finantzatzen laguntzeko**

- **Eragiketaren bidez, Kutxabanken 300 milioi euroko balioa duen hipoteka-zedula bat, finantza-erakundeari 600 milioi euroko finantzaketa mobilizatzeko aukera emango diona, sinatu du EIBk.**
- **Transakzioari esker, energia-eraginkortasun handiko eraikinen eraikuntza eta lehendik dauden etxebizitzaren birgaitzea bermatu ahal izango dira.**
- **Eragiketa bat dator EIBren politika publikoko lehentasunekin eta ekintza klimatiko eta ingurumen-iraunkortasuneko zeharkako bere ekintza-ildoarekin.**

Europako Inbertsio Bankuak (EIB) eta Kutxabankek 300 milioi euroko balioa duen hipoteka-zedula bat erosteko akordioa sinatu dute, eta horri esker, Kutxabankek 600 milioi euroraino mobilizatu ahal izango ditu finantzaketan. Eragiketa horrek bultzada emango dio Espainian energia-eraginkortasuneko irizpideekin eraikuntzari lotutako proiektu berdeetan inbertitzeari.

Inbertsioak energetikoki eraginkorrak diren eraikinen eraikuntza berriko eta higiezinak irizpide jasangarriekin berritzeko proiektuetara bideratuko dira. Inbertsio horiek posible izango dira hipoteka-mailegu berde, kontsumorako mailegu edo sustatzaileentzako mailegu bidezko finantzaketari esker, Kutxabankek mailegu horiek merkatuan jartzeko konpromisoa hartzen duelarik.

Klima-aldaketa murrizten laguntzen duelako nabarmentzen da proiektua. Eraginkortasun energetikoko jarduketek karbono-isuriak eta poluzio atmosferikoa murrizten laguntzen dute, baita eraikinetan erosotasuna eta airearen kalitatea areagotzen ere eta elektrizitate- eta berokuntza-fakturak murriztea.

Eragiketa bat dator EIBren politika publikoko lehentasunekin 'Energia jasangarria eta baliabide naturalak' eta 'Hiri eta eskualde jasangarriak', bai eta ekintza klimatiko eta ingurumen-iraunkortasuneko zeharkako ekintza-ildoarekin ere. Estatu-mailan, proiektuak ekarpena egiten du, halaber, energia primarioaren kontsumoa murrizteari eta eraikinak berritzeari dagokienez Espainiak dituen helburuak, 2021-2030 Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuan (PNIEC) ezarritakoak, betetzeko.

Inbertsioen zati bat EBk gutxien garatutzat jotzen dituen Espainiako eskualdeetan egitea aurreikusten da, non *per capita* errenta EBko batez bestekoaren % 75 baino txikiagoa den. Horrek agerian uzten du EIBk Europar Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzen laguntzeko konpromisoa duela.

Jean-Christophe Laloux-ek, BEIren EBrako mailegu eta aholkularitza eragiketen burua eta zuzendari nagusia, eta Anton Arriolak, Kutxabankeko presidentea, Luxenburogan egin duten bileran berretsi dute akordioa.

“Pozik gaude Kutxabankekin elkartuta Espainian eraginkortasun energetiko handiena duen etxebizitza sustatuko duen proiektu batean”, adierazi zuen **Christophe Laloux BEIren EBrako mailegu eta aholkularitza eragiketen burua eta zuzendari nagusiak**. “Akordio hau EIBren hipoteka-zedularen

lehen eragiketa da, eta gure irizpide klimatikoekin eta ingurumen-iraunkortasunarekin %100ean lerrokatzen da”.

Bestalde, **Anton Arriola Kutxabaneko presidentea** gaineratu duenez, "akordioa bat dator gure erakundearen helburu estrategikoetako batekin, hau da, kapital-fluxuak inbertsio jasagarrietara bideratzearekin, CO2 isuri gutxiagoko negozio-ereduetarako trantsizioan lagunduz gure bezeroei. Horretarako, finantzaketa jasagarriko produktuak eskaintzen ditugu, ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak barne hartzen dituztenak”.

Hau beste kapitulu bat da EIBren eta Kutxabanken arteko lankidetzaren historian, 2015ean bi erakundeek sinatutako azken transakzioaren ondoren. Proiektu berdeetara oso-osorik bideratutako lehen akordioa izateak bereizten du oraingo eragiketa hau aurreko finantziarioekiko.

## Informazio orokorra

### EIB

[Europako Inbertsio Bankua \(EIB\)](#) Europar Batasuneko epe luzerako finantzaketa-erakundea da, eta bere akziodunak estatu kideak dira. EIBk epe luzeko finantzaketa ematen die EBren politikaren helburuak lortzen laguntzen duten inbertsio sendoei.

Europako Inbertsio Banku Taldeak (EIB Taldea), Europako Inbertsio Bankuak (EIB) eta Europako Inbertsio Funtsak (EIF) osatua, guztira 11.400 milioi euroko finantzaketa sinatu zuen 2023an Espainian. Bere jarduera osoari dagokionez, EIB Taldeak 88.000 milioi euro eman zituen finantzaketa berrian 2023an, bederatziehun projektutan baino gehiagotan banatuta. Aurreikuspenen arabera, konpromiso horiek 320.000 milioi euro inguru mobilizatuko dituzte inbertsioetan, 400.000 enpresa eta 5,4 milioi lanpostu bultzatzeko.

### Kutxabank

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena Andaluzian, Madrilan eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta European arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.

## Prentsa-harremanak

### BEI

**Maite Cordero** | [m.corderomunoz@eib.org](mailto:m.corderomunoz@eib.org) | tel.: +34 606 66 82 62

**José Vicente Alzola** | [j.alzola@ext.eib.org](mailto:j.alzola@ext.eib.org) | tel.: +34 608 14 39 03

Web: [www.eib.org/press](http://www.eib.org/press) | Prentsa-bulegoa: +352 4379 21000 — [press@eib.org](mailto:press@eib.org)



### Kutxabank

**Endika Ruiz de Zarate** | [eruiddez@kutxabank.es](mailto:eruiddez@kutxabank.es) | tel.: +34 605779730

**Miren Morondo** | [mmorondo@kutxabank.es](mailto:mmorondo@kutxabank.es) | tel.: +34 943 00 13 31